


85. zk.  
2000ko urtarrila



Frankeo itundua 48/27



# BAI!

# globenie

## Liburudenda

Benito Ginea kalea, 2 • Tel-Faxa: 945 25 75 14

### 2000

#### URTARRILA

A	A	A	O	O	L	I
					1 2	
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

#### OTSAILA

A	A	A	O	O	L	I
						6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29					

#### MARTXOA

A	A	A	O	O	L	I
						5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

#### APIRILA

A	A	A	O	O	L	I
						2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

#### MAIATZA

A	A	A	O	O	L	I
						7
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

#### EKAINA

A	A	A	O	O	L	I
						4
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

#### UZTAILA

A	A	A	O	O	L	I
						2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

#### ABUZTUA

A	A	A	O	O	L	I
						6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

#### IRAILA

A	A	A	O	O	L	I
						3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

#### URRIA

A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29

#### AZAROA

A	A	A	O	O	L	I
						5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

#### ABENDUA

A	A	A	O	O	L	I
						3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

# hilabete honetan

2000 • URTE BERRIA • ALDIZKARI BERRIA • IZEN BERRIA • GEU • DASTATU  
ETA URTE BERRI ON GUZTIOI!

23... 25. orr.  
Okupazioa  
Legutio.  
Urtebeteko  
ametsa



12... 16. orr. Zukua  
Arabarrok  
euskarari bai



31... 34. orr.  
Soinuen  
dantza  
Basque  
Electronic  
Diaspora



17. orr. Begira. Ondare  
kulturala.

18. orr. Euskara harat  
honat.

26. orr. Elhuyar. Zientzia  
eta teknika

28. orr. Xake Mate.

30. orr. Herririk Herri,  
Hizkuntzaz hizkuntza.

• atalak •

4. orr. Zizka-Mizkak - 7. orr.  
Laburretan - 11 orr. Nik uste!  
19. orr. Kozkortuz - 35. orr. Zeuk  
aukeratu! - 38. orr. Komikia

40 ORRIALDE  
URTARRILEAN!!!



*5.000 lagunetik gora bildu zen abenduaren 11n "Arabarrok euskarari bai" lelopean 21 kolektibok -Arabako talde euskaltzaleak, politikoak, sindikalak eta sozialak- deitutako manifestapenera; milaka arabar, Rabanerak hurbildu gehienak "kanpotik etorriak" zirela esan arren...*



*Beraz, zorionak Araba!!!*



*Gasteizko Udalak Bakeaz erakundearekin batera "Giza eskubideak. Galderak eta erantzunak" liburuarren 85.000 ale kaleratu ditu, batez ere ikasleen artean banatzeko. Eta esango duzue..., eta zer, txarto al dago hori, ala? Ez dugu aztertuko ateratako ale kopurua gehiegi den ala ez, kontuan izanda Araban 35.000 ikasle baino ez dagoela... Baina ezin gera gintezkeen ixilik gazteleraz baino ez zaudela ikustean. Hortaz, idazkia txarto hasi dut, "Derechos humanos: preguntas y respuestas" jarri behar bainuen, den bezala... Eta giza eskubideez mintzo dira? "Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko, ez da inor baztertuko..." (Giza eskubideen 2. artikulua).*



GEU Elkartean ekimenez egina

**Erredakzioa:** Pedro Asua, 2 - 3.a  
**Tfnoa. eta Faxe:** 945 22 21 53  
**e-mail:** geugaste@grn.es

**Zuzendaria:** Estitxu Breñas Glz. de Zarate.  
**Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez.  
**Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron.  
**Argazkiak:** Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B. **Maketa:** DAV '00. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Irudigilea:** Mikel Valverde. **Kolaboratzaileak:** Amaia Zaldúa, Maider Perez, Iñaki Zorrazkin eta Iñigo Kastresana. **Publizitatea:** Edurne Begiristain. **Banaketa arduraduna:** Txipi Ormaetxea.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)  
**Ale Kopurua:** 2.500 - LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988 -

*Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik.*

## zenbakia

# 23

*Hogeita hiru izan ziren, atrikimenduez gain, abenduaren 22an Principal Antzokian euskal presoan aldeko ETXERA gala artistikoan esku hartu zuten arabar ezzenatokiko pertsona eta taldeak.*

**ikusi-makusi**


*Nomada norvegiarrak Gasteizen: "free people", askeak besterik gabe*



Argazkia: Iñaki Olano

*"Walker eta Marian nomada norvegiarrek Gasteizen emandako bizpahiru egunetan hamaikatxo lagun harri eta zur utzi zuten hiru asto eta bost zakurrekin hiria alderik alde zeharkatzean...". Horrela hasten da Iñaki Olanok lagun berezi hauen inguruan idatzitako istorioa... Beraiekin aritu zen hizketan azaroan gure hirira etorri zirenean. Adi egon, beraz, otsaileko aleari, istorio hau argitaratuko dugu-eta.*

**araba bixotzian**



VITORIA - GASTEIZ

Mikel Valverde / 99

# zizka - mizkak

## e l e k a

“Saiatuko nintzateke normalean jartzen ez diren gaiak jartzen. Emakumeen sexualitatea adibidez: hilekoa, masturbazioa eta abar”

Maialen Lujanbio. Bertsolaria. Zazpika. 1999ko urrian

“Euskal Herrian bizi daiteke idazle izatetik”  
Patxi Zubizarreta. Idazlea. ARGIA. 99ko azaroan

“PPk euskara eguneroko bizitzatik erabat desagertarazi edo behintzat oso esparru marjinaletara zokoratu nahi du”  
EHE. Egunkaria. 99ko azaroan

“Euskal Herrian elkartasuna dagoela erakutsi du jendearen erantzunak”  
Gizarte Eskubideen Agiriaren Aldeko Plataformako ordezkaria, Peio Aranburu. ELKARTASUN MARTXA. Egunkaria. 99ko azaroan

“Gizarteak bultzatu behar du euskal selekzioa”  
Joseba Gotzon, “Euskal Selekzioaren historia” liburuaren idazlea. Egunkaria. 99ko azaroan

“Araba Pabilioian saskibaloian jolastu badaiteke, zergatik ezin da gimnasia egin?”  
III. Gimnasia Nazioarteko Topaketa: Euskadi-Ukraina-ko antolatzaileak.  
El Correo. 1999ko abenduan


“Munduaren erdi bat 10 hizkuntzatan mintzatzen da; bestea 5000tan”  
Zabalik. 1999ko azaroan

“Euskararen garapenari oztopoak jartzea hutsegite itzela iruditzen zait”. Antonio Campos. Euskal Ikastolen Konfederazioko Lehendakaria.  
Arabako Egunkaria. 1999ko abenduan

## izenak



**Alberto Ibañez Ruiz de Arkaute**  
Gasteiztarra, 1970ean jaioa  
XXII. Maratoi erdiko edizioko irabazlea  
Denbora: Ordubete, 7 minutu, 55 segundu  
Batez bestekoa: 18.638 km/o.  
1997an ere irabazle



**Nieves Zarza Martinez**  
Gasteiztarra,  
1967an jaioa  
XXII. Maratoi erdiko edizioko irabazlea  
Denbora: Ordubete, 17 minutu, 46 segundu  
Batez bestekoa: 16.277 km/o.  
1997an ere irabazle

LIBURUDENDA

# axular



Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

## zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65  
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33  
**GASTEIZ**

## ARANBIZKARRA

ZURE

### AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16  
Tfnoa.: 945 28 28 39  
**01002 Gasteiz**

## Argazki -

# Erramun

Heraclio Fournier, 23  
Tfnoa: 13 71 02  
01006

Askatasun kalea, 5  
Tfnoa: 26 19 91  
01004

## Presoak euskaraz



**I**kasturte berriarekin batera urriaren lehenengo egunetan hasi ziren AEK-ko irakasleak Langraitzeko kartzelako presoek euskara klaseak ematen. Espetxeko apaizak jo zuen AEK euskaltegiko arduradunengana presoek euskara klaseak emateko eskatuz eta egun 30 gizon-emakume, preso politiko zein sozialak, bildu dira hiru taldetan euskara ikasi edo hobetzeko. Lehenengo urratsean 12 ikasle daude, bigarren taldeak 3. eta 4. urratsen arteko maila duten 6 lagun hartzen ditu eta goi urratsek, beste 12.

AEK-ko arduradunek azaldu dutenez, euskaltegietako gainontza berdinak, jolasak,...

Testuak: L. L. de A.  
Argazkiak: E. S.

tzeko ikasleekin erabiltzen den metodologia bera erabiltzen dute: ariketa berdinak, jolasak,...

## Bertsolariak Gasteizko Plazara

**G**asteizko bertsozale-entzako ohitura bihurtzen hasia da GEU Elkarteak antolatzen duen urte hasierako bertso

saioa. Aurten Jon Sarasua, Joxe Agirre, Jesus Mari Irazu, Oihane Perea, Xabier Amuriza eta Unai Iturriaga arituko dira Jon Maiaren esanetara, otsailaren 26an arratsaldeko 8etan Principal Antzokian. Beraz, otsailaren azken larunbatean sei bertsolari taularatuko dira urteroko zitan: gazteak, esperien-

tzia handikoak eta esperientzia handiko gazteak.

Beste urte batzuetan Arabako bertsozaleentzako zita polita bilakatu den GEUK atondu bertso saioan arabarrak ez kantatzeak polemika sortu izan du; aurten Oihane Perea arituko da beste bostekin batera.

## MultiOpticasen gero eta errazagoa da gehiago lortzea.

Izan ere, erabili eta botatzeko Multilens lentineen 6 hilabeterako\* Packa erosita,

# 14.900 pta.

baino balio ez duena, sudadera zoragarri bat oparituko dizugu.

\*Hilero aldatzeko lente-kaxa bi, 500 ml-ko disoluzio bakarreko bi pote eta lenteentzako zorroa.

**BAUSCH  
& LOMB**

**MENDIAOPTIKA  
MULTIOPTICAS**

ZERBITZU  
OPTIKOETAN  
**1a**

Andre Maria Plaza  
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)  
**GASTEIZ**



## Zine laburra

**G**asteizko Filme Laburren Jaialdia burutu zen abenduan Gasteizen eta antolatzaileak ere harritu egin dira ikusle kopuru altuarekin. Izan ere, zine aretoak erabat bete ziren eta zaila izan zen arratsalde zein gaueko saioetarako sarrerak lortzea.

Ikusleek gozatu ahal izan zituzten filmeen artean, Ramon Salazar-en "Hongos", Alberto Rodriguez eta Santiago Amodeoren "Bancos" eta Silvia Munt aktoreak zuzendutako "Lalia" nabarmendu behar dira.

Juanma Bajo Ulloa gasteiztarrak "Americanos cotidianos" laburmetraia aurkeztu zuen.

## Lakuako haur eskola, prest

**I**kasturtea ofizialki hasi eta hiru hilabeteetara zabaldu zituen ateak Lakuako haur eskolak. Martxoan haurren izena ematea amaitzean eta uste baino askoz haur gehiago bilduko zirela ikustean, lokal berria egitea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak. Lanak amaitu eta gero, abenduaren lehen egunak arte ez zituzten lanean hasteko beharrezko baimenak erdietsi. Lokala prest egotean ere ez zen polemika amaitu, Hezkuntza Sailak bi eguneko epe laburrarekin abisatu baitzien gurasoei seme-alaben eskola prest zegoela. Azaroaren 30ean jakin zuten klaseak abenduaren 1ean hasten zirela.

### EUSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko  
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

### Xabier taberna

musika ona  
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

EL  
BAR  
Kutxi

eguneko menua

OLARIZU MENDI  
HERRIKO TABERNA  
JOSE URUÑUELA  
KALEAN

GASTEIZKO  
IRUBIDE  
RAMIRO DE MAEZTU  
KALEAN  
HERRIKO TABERNA  
HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA  
"SAN FRANCISCO  
JAVIER" KANTOIAN



## 17 urteko berandutzea

**G**asteiz Hiribidearen amaieran dagoen Konstituzio plazako eskultura inauguratu egin zuten PP, PSOE eta UAKo eledunek bertan jarri eta 17 urte beranduago, hamar minutu eskaseko iraupena izan zuten ekitaldian. Aipatu hiru alderdietako ordezkariak baino ez ziren bildu Konstituzioaren omenezko ekitaldian, alderdi abertzale eta EBk ekimenaren aurka agertu baitziren.

Euskal preso politikoen aldeko lagun talde batek ekitaldia aprobe txatu zuen presoen Euskal Herriratzeari eskatzeko. Iturrira sartu eta bertara enkadenatu ziren "Euskal presoak Euskal Herrira" zioten pankartekin.



## PPren politika atzerakoia

**A**lfonso Alonso buru duen Gobernuak Udal Hartzaindegietan egin nahi duen aldaketak polemika pizten darrai. Gasteizko guraso talde batek PPren asmoak gaitzetsi ditu eta "beren seme-alabek euskaraz bizitzen hasteko duten eskubidea defendatuko" dutela adierazi. Alabaina, udal haur eskolak ez dira guraso talde horren kezka bakarra, gizarte etxeetako ludotekek ere gaztelera hutsezko jarduera baitute.

Bi kasuetan nolabaiteko tranpa egiten dela uste du taldeak, "euskara eta gaztelera gela berean nahasten denean, gaztelania nagusitzen delako beti-beti".

 **maddi**  
euskal neskak  
neskentzako kamiseten marka



bakar-bakarrik

**NONBAIT**-en aurkituko duzu

Loma jeneralaren plaza, 5  
Mateo de Moraza, 7

**GASTEIZ**

Tel./faxa: 945 232229  
nonbait@nonbait.com

**H**IESaren aurkako eguna ospatu zen Gasteizen, mundu zabalaren bazter gehienetan bezala. Gaixotasunaren aurka lan egiten duten taldeek salatu dutenez, egun gehiegizko baikortasunez begiratzen zaio duela urte gutxi izurrite madarikatua omen zenari, oraindik erabat beharrezkoa den prebentzioa alboratuz.

**G**abonetako jaiak igarota Udaleko teknikoek etxeak apaintzeko erabiltzen diren pinuak hartu eta berriro landatuko dituzte, azken urteetan egin duten modura, arbolak alferrik ez galtzeko.

**B**atar Nagusietako oposizioko hainbat taldek Garaio-ko parkean haurrentzako igeritoki bat jartzea eskatu zioten Foru Gobernuari, azken udan eta urtegi horretan neskato bat itota hil zela gogoratuz. Diputazioren Gobernuak ez zuen proposamena onartu.

**2**000. urteko irailean prest egongo ei da EHUko Gasteizko Kanpusak bultzatuta egiten ari den ikasleentzako erresidentzia. 200 lagunentzako tokia izango du eta Ospital militar zaharra zegoen tokian egingo da.

**T**rebiñori buruzko EAE eta Gaztela-Leonen arteko komisioa bi urte luze egon da bildu barik. Trebiñoko biztanleek bilerak zerbait aldatuko zuen itxaropena bazuten ere, UDA Elkarteak ez duela ezertarako balio izan salatu du; Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan, aldiz, Trebiño kontuan hartzea oso garrantzitsutzat jo du.

geugaste@grn.es



## GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

# GASTEIZKO GAUA

Hilero bezala, kaleko jendearengana jo dugu aukeratutako gaiari buruz duten iritzia jaso asmoz. Oraingo honetan, "Gasteizko gauan" murgildu gara, bertan mugitzen den gazte jendeak gustuko dituen lekuak ezagutzeko.

Besterik gabe, ikus dezagun zer esan diguten!

## 1.- Asteburuetan irtetzeko, zeintzuk dira gustukoak dituzun lekuak?

## 2.- Zerbait aldatuko al zenuke Gasteizko gaua hobetzeko?



Estitxu. Ikaslea

1. Normalean, Aitzogile eta Pintore kaleetatik ateratzen naiz.
2. Bai, tabernen kontua. Izan ere, goizegi ixten dituzte eta beste leku batera joan beharra daukagu...



Iñigo. Ikaslea

1. Alde zaharra da gustukoan dudana tokia. Hala ere, leku ezberdinetan ibiltzea gustatzen zait.
2. Kalea garbiago egongo balitz...



Xabier Ortiz de Murua. Ingenieritzako ikaslea

1. Gehienetan "Kutxi", "Pinto" eta inguru horietan igarotzen dut gaua.
2. Bai. Nire ustez, tabernek garbiago egon beharko lukete.



Xabier Gonzalez. Ikaslea

1. Alde zaharrean ibiltzea dut gustuko. Pintore, Aitzogile eta Zapatarri kaleetako tabernetan egoten gara.
2. Ez. Nik behintzat ez nuke aldaketarik egingo.



Mikel. Ingenieritzako ikaslea

1. Irtetzeko orduan Alde zaharra da atseginen dudana lekua.
2. Momentuz, dena dagoen bezala utziko nuke.



Joseba Iza. Ikaslea

1. "Kutxi", "Pinto"... gustatzen zaizkit. Dena den, "Ganbara" tabernako kantoian igarotzen dugu ia gau osoa.
2. Bai. Nire ustez, aldapa gehiegi daude Alde zaharrerako bidean.



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN  
"kalitatea eta  
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

# Arabarrok

Martxoko hauteskundeak eta gero PPK Arabako Diputazioa eta Gasteizko Udalaren zuzendaritza hartu zuenean euskararen politikan aldaketarik egingo ote zen susmoa agertu zuten hiriko hainbat talde euskaltzalek. Susmoa egia bihurtu dela uste du orain Euskaltzaleon Elkarguneak. PPK, berriz, sakoneko aldaketarik egiteko denborarik ere ez duela izan dio eta eskandalagarritzat jo dituzte euskararen aldeko eta bere hizkuntz politikaren kontrako adierazpen eta mobilizazioak. Abertzaleek euskara patrimonializatu nahi dutela salatu du Udala eta Aldundiaren Gobernuaren ardura duen alderdiak; PPren ustez, kritiken atzean hizkuntzaren aldeko arrazoiak baino gehiago motibazio politikoak daude.

Cuerda eta Ormazabalaren Gobernuekin alderatuz planteatu diren aldaketa nagusienak, edo polemikoenak behintzat, bi dira: udal hartzaindegien eredu bakarra eta Diputazioaren Euskara Zerbitzuaren desagertzea. Arabarrok Euskarari Bai agiriaren sinatzailek hizkuntz politikaren aldaketaren lehengo eraginak jadanik bistakoak direla deritzote.

# euskarari bai



#### BATEGINIK

Eragin horiei aurre egiteko elkarlana bilatu dute Arabako talde euskaltzale, alderdi politiko eta sindikatuak, eta gizartearen laguntza eskatu abenduaren 11n egindako manifestazioaren bitartez euskararekiko atxikimendua erakusteko. Lehenengo mobilizazioak burututa, sektore eta arlo ezberdinetan lan egiten dutenen arteko elkarlana eta Arabako gizartearen erantzuna izan dira ekimenaren bultzatzaileak azpimarratu dituzten ideia nagusiak. ELAko Mireiaren iritziz "arlotako jendea mobilizatu eta erantzun bat emateko gauza garela erakutsi dugu, amankomunki lan egiteko gauza". Elkarlanak gainera hemendik aurrera ere jarraituko duela argi utzi dute euskaltzaleek.

Aurrerantzean Euskaltzaleon Elkarguneak bi lan ildo prestatu ditu: batetik, jakinaraziko dituzten mobilizazioekin segitu, eta bestetik, erakundeekin negoziatu. Erakundeekiko harremanak irizpide zehatzekin egingo dira: guraso eta hezkuntzako langileek Udala eta Aldundiko ordezkariekin hitz

## Denon Eskolari urtez urte Euska- raren astea anto- latzeko Diputa- zioak emandako dirulaguntza aur- ten azalpen han- diegirik gabe ukatu egin zaio

egitea proposatuko dute, aldaketen arrazoi tekniko eta pedagogikoak aztertzeko.

Arabako gizarteak mobilizazioei, abenduaren 11ko manifestazioari batez ere, emandako erantzuna erabat positiboa dela azpimarratu dute antolatzaileek. Mikel Mintegik, aurreko legegintzaldiko Kultura eta Euskara Diputatu eta EAko Asanblada Nazionalako kideak "manifestazioan gazteak, gurasoak eta mugimendu sozialen inguruko jendea" bildu zela dio. "Horrek esan nahi du guraso eta ikasleentzat PPK proposatutako aldaketak arazoa direla, baren aurka daudela".

#### ERAGIN ZEHATZIK?

Euskaltzaleon Elkarguneen ordezkariak PPren eragina eta bultzatutako aldaketak Udala eta Aldundiaren ardura hartu eta laupabost hilabetetara nabariak direla adierazi dute. Encina Serrano, Gasteizko Kultura Zinegotziak udal haurtzaindegietarako proposatutako aldaketak momentuz hausnarketa hutsa direla behin eta berriro azaldu badu ere, eus-

## "Gauzak konpontzeko irrika nabari da"

ELAko Mireiak gauzak konpontzeko irrika nabaritu zuen manifestazioan bildu ziren lagunengan. Eta Mikel Mintegirekin bat dator PPK oso jarrera sotila eta azkarra izan duela salatzean. *"Jarrera aldageta ofiziala egon ez denez, nekeza izan da hiritarroi gertatzen ari zena helaraztea, eta horrela erantzun bat ematea ere zailagoa da, dudarik ez"*.

Mintegi, Kultura eta Euskara Diputatu ohiak ez du inolaz ere sinesten Gasteizko Udalean eta Arabako Foru Aldundian gertatu aldaketak izenekoak direnik edota hausnarketa hutsean geratu direnik. Aurreko legegintzaldian Diputazioak euskalgintzan aurrerapauso nabarmena eman zuela defendatzen du Mintegik: *"Euskarak, Arabako hizkuntza, oraindik ere aldeko politika behar du eta Aldundiak paper garrantzitsua bete izan du"*. Euskara Zerbitzua kentzea aukeratu zuen Ramon Rabaneraren taldeak Gobernu lanean estreinatzeko, eta horixe da Mintegiren ustez lan eraginkorra egiten zuen frogarik onena.

Gizartearen erantzuna oso ona dela uste dute EAn zein ELAn. Hala ere, ez dute mezu positiboa erabat islatzen, arriskua ikusten baitute, batez ere orain arte Aldundian eta Udalean iragarri diren aldaketek min handia egin dutelako. *"Nire ustez oso jarrera arriskutsua erakutsi du PPK eta, gainera, oso azkarra izan dira"*, adierazten du Mintegik.



**"Datu horrek argi uzten du Zerbitzua ezabatzea helburu bat zela eta, gainera, iritzi publikoari datua ezkututzen saiatu zirela"**  
**(Mintegi)**

kararen aldeko ekimenaren bultzatzaileek hiru urte bitarteko umeen hezkuntzan desberdintasunak ikusi dituzte: *"Ez dute aldaketak egin dituztela jakitera eman. Hori egia da, baina eman eman dira. Gertatu izan da baurra D ereduaren zegoela uste izan, eta haur eskolara joanda gaztelearen erabilera asko bazi dela konturatu. Eta horrela gauzak inori ezer esan gabe egin dira"*. Politika aldagetaren beste adibide bat Denon Eskolari urtez urte Euskararen astea antolatzeko Diputazioak emandako dirulaguntza aurtien azalpen handiegirik gabe ukatu egin zaiola da.



Lurraldeko Ejekutiboaren aldaketak izenekoak bakarrik edo sakonekoak diren eztabaida ere piztu da. PPrentzaren iritziak, Euskara Zerbitzua desagertzeak eta lehengo Kultura eta Euskara Saila egun Kulturakoa baino ez izateak ez du hizkuntza politika eraginkorrek egitea eragotziko.

Mikel Mintegiri izen aldatzea ez zaio gustatu, *"baina larriena da helburuak aldatu egin direla"*. Kultura Diputatu ohiak Euskara Zerbitzua ez dela bere taldeko asmakizuna izan gogoratu du, Bizkaian eta Gipuzkoan ere Kultura eta Euskara Departamendua baitago.

Egun Pedro Sancristoval jauna buru duen Kultura Sailaren berrantolatzea egin den modua nahikoa adierazgarria dela uste du EAKo kideak. Izan ere, foru diputatuen izendatzea uztailaren 30ean izan zela gogoratu du, *"eta bi egun lehenago Euskara Zerbitzuaren desagertaraztea erabaki zen. Datu horrek argi uzten du Zerbitzua ezabatzea helburu bat zela eta, gainera, iritzi publikoari datua ezkututzen saiatu zirela"*.

### EUSKARA ZERBITZUA

Aurreko legegintzaldian EAJ eta EA Aldundiko Gobernuan zeudenean, hiru ziren Euskara Zerbitzuaren helburuak. Lehenengoa, lurraldeko udalei euskara bultzatzeko eta euskarazko ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak ematea. *"Adibidez,*

Arabako udal txikiak, gebienak, ez dute Eusko Jaur-laritzak euskara klaseak subentzionatzeko eskatu ikasle kopuruaren oinarria betetzen. Kasu horietan Diputazioak ematen zituen laguntza horiek", azaldu du Mintegik.

Bigarrenik, Diputazioak diruz lagundutako proiektu guztien iragarpen publikoak elebiduna izan behar du derrigorrez, "eta talde askok ez dutenez itzulpenak egiterik, Zerbitzuak berak egiten zuen". Azkenik, foru funtzionarioen euskalduntzearen planifikatze eta kudeatzea egiten zuen Euskara Zerbitzuak.

Mikel Mintegik salatu duenez, euskara Funtzio Publikoaren ardurapean dagoenetik hirugarren helburua baizik ez da mantentzen.

## "Arlo askotako jendea mobilizatu eta erantzun bat emateko gauza garela erakutsi dugu" (Mireia. ELA)

### HIZKUNTZA KALETIK KENDU

Eratu berri den Euskara Kontseilua-  
ren xede eta filosofia finkatzeko orduan  
ere ez dira ados jartzen PP eta euskal-  
tzaleak. "Kontseilua-  
ren helburuak euskarari  
prestigio eman eta Arabako toponimiari buruz-  
ko ikerketa egitea direla esan du PPK berak.  
Prestigio eman? Euskarak nabikoa prestigioa  
du aspaldian, orain behar duena da erabilera  
bultzatzea". Mikel Mintegik oso hitz  
gogorak erabili ditu PPren arduradu-  
nen aurka, "arlotan egin nahi dutenak  
Francoren garaia gogora ekartzen dit, euskara  
kaletik kendu nahi baitute".



## KALERATUTAKO AGIRIA

Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala gutxiengoan gobernatzen ari diren UA eta PP alderdietatik azken hilabeteotan euskara jasotzen ari den erasoaren aurrean, behean sinatzen dugun taldeok zera adierazten dugu:

- Udal haur eskoletan "hizkuntza eredu bakarra" ezartzeko asmoaren aurrean, gure desadostasuna adierazi. Proposamen honekin gizarateak gaindituta zeukan eztabaida berpiztu nahi dute, aspaldi lortu zen adostasuna apurtu nahian, alferrikako polemika sortuz. "Elebidun kutsuko eredu bakar" horrek ez du inolako oinarri pedagogikorik, ez ditu gurasoen

nahiak eta askatasuna kontuan hartzen, ezta beste hezkuntza etapetan indarrean dagoen sistema ere, eta ez du bermatzen ofizialak diren bi hizkuntzen jabetzea. Asmo honek kalte egingo dio gizarateak egin duen urteetako ahalegin integratzaileari; Arabarrok XXI mendeko gizarate eleanitza eraikitzearen aldeko apostua egin dugu.


- Foru Aldundiaren Euskara Zerbitzuaren desagerpenaren aurrean, gure kezka azaldu nahi dugu. Euskarak hizkuntza gutxitu bezala behar duen berezko tratamendua desagertzen da, sinbolikoki nahiz eguneroko jardueran hizkuntza gutxituaren arazoa

desitxuratuz eta eman beharreko erantzunak ekidinez.

- Arabako gizarateak edozein giza egoeratik, edozein jarrera politikotatik, Errioxatik Aiarara, Trebiñotik Gasteizera behin eta berriro erakutsi du bere konpromiso eta nahia eskararekiko. Araban badira erdaldun asko eta asko beraien seme-alabak euskaldunak ere izatea nahi dutenak, nahiz eta euskaraz ez jakin hainbat arrazoiengatik, euskararen aldeko prozesuan zuzenean murgildu direnak. Arabako zein Gasteizko gizaratearen adostasuna lortu duen arlorik bada, hori euskara da, Araba euskalduna eraikitzeo nahia.

**Sinatzaileak: AEK, Bagare, EAJ, EA, EB, EH, EHE, ELA, ESK, Euskaraz Bizi, GEU, IA, IKA, LAB, Ikastolen Federakundea, STEE-EILAS, Unibertsitateko Euskal Adarra, Zutik, Urtxintxa eta Denon Eskola.**

# Iñaki Oyarzabal: "Euskararen Kontseiluak errealitatearekin lotuago dauden hizkuntz politikak martxan jarriko ditu"



integratzaile eta eleanitza, irizpide tekniko eta pedagogikoak kontuan hartuta finkatuta" bezala definitu duena.

Iñaki Oyarzabal, Arabako PPko Hezkuntza arduraduna eta Legebiltzarreko kideak eskandaluzkotzat jo du "oraindik ezer aldatzeko denborarik izan ez dugunean mobilizazioekin hastea" eta abenduaren 11ko manifestazioaren arrakasta ere zalantzan jarri du, "Gipuzkoako jende ugari etorri zen, laupabost autobus bai".

Talde euskaltzale, alderdi politiko eta sindikatuek lortutako elkarlana ere kritikatu du buruzagi popularrak, Ramon Rabanerak manifestazioa baino lehen egin bezala, kritiken atzean arrazoi politikoak besterik ez daudela argudiatuz: "manifestazioaren antolatzaile-etako batzuek ez diote batere lagundu euskarari, euskara inposatuz kontrako giroa baino ez baitute lortu". Ildo hori jarraituz EAJ, EA eta EBri elkarlanerako lagunak hobeto auke-ratu behar dituztela esan die. "A ereduko irakasle eta ikasle-en kontrako mehatxuak botatzen aritu diren horien eskutik helduta ezin da ezer egin", adierazi du Oyarzabalek, nori eta zeri buruz ari zen zehaztu gabe.

## "GEHIENGO SOZIALA"

Bestetik, bere alderdiak hauteskundeak irabazi zituela gogoratu eta gero "manifestazioan zihoztenak gehien oihukatzen dutenak dira, baina ez Arabako gehiengo soziala" azaldu du. Udal eta Foru hauteskundeetarako aurkeztu zuten programan zein hizkuntz politika garatuko zuten argi eta garbi esan zutela ere adierazi du EAEko diputatuak: "gure ustez Arabako gehiengoak gauzak aldatze-aren alde dago, eta guk errealitatearekin lotuago dagoen hizkuntz politika aurrera eramango genuela esan genien hautesleei. Orain planteatu politika hori jorratzeko babes soziala dugu".

Oyarzabalek Euskaltzaleon Elkarguneak plazaratutako kritikei erantzun egin die. Udal haur eskolei buruz, salaketak eragin dituen jokaera momentuz hausnarketa hutsa dela esan zuen, nahiz eta ez duen ukatu eredu bakarra ezarri nahi dutela, "3 urte beherako haurrak etiketatzen ez dituen eredu

"Manifestaldira  
Gipuzkoako  
jende ugari etorri  
zen, laupabost  
autobus bai"

PPk indar  
abertzaleek eus-  
kalgintzan egin-  
dako lana hobe  
dezakeela eraku-  
tsiko du datozen  
lau urteotan

Diputazioari buruz, aurtan hasi den legegintzaldian funtzionarioen euskalduntzea helburu bakarra denik ukatu egin du eta aurreko foru gobernuaren irizpideak mantentzeaz gain, euskarari dagokion aurrekontua igo egin dela ziurtatu du PPko ordezkariak.

PPk indar abertzaleek euskalgintzan egindako lana hobe dezakeela erakutsiko du datozen lau urteotan Oyarzabalek esandakoaren arabera, "abertzaleek garatutako politikekin euskara ikasi ikasi egin da, baina erabilera indartzeko orduan porrot egin dute".

# ITURRIETA

## Sagardotegia



2000. urtean, zer?  
Sagardo berria, jakina.

Arraga auzoa. Tfnoa.: 945 44 53 85 • ARAMAIO

# Ka La mu TABERNA

Obdulio Lpz. de Uralde  
Margolaria,5

Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16

01008 Vitoria-Gasteiz



# ondare kulturala. Ikerketa, hedapena...



**Begirak Geu aldizkariaren atal berri hau aurkezten dizue, irakurle maiteok, guztiok dugun hutsune bat bete dezakeena; hain zuzen kultura, historia, artea eta bidaiak edo txango kulturalak. Gure asmoa zera da, alerik ale alor bakoitzeko ohartxo edo izkribu bat egitea.**

## Kultura

Kultura arloan, zer egingo dugu? Hilabeteaz zehar Euskal Herrian antolatu erakusketen berri eman eta hainbat komentario egin-gomendioak, zer ikusi, nola ikusi, eta abar-. Euskadi ez ezik, gure lurraldetik kanpo burutzen diren ekintzak ere ez ditugu ahaztuko atal honetan.

## Historia

Historia arloan gure herriak nozitu dituen hainbat gertaera berezi eta iluni argia ematen saiatuko gara, betiere kontuan hartuta ezin direla lehengo giza-baloreak gaur egungoekin konparatu edo aldentu. Gertaera historikoak bere momentuan ulertzeko gizarte hark zituen baloreak irizpide-tresnatzat hartu behar dira.

## Artea

Gure arte historikoa ezagutzeko da gure xedea. Azken finean, ezagutzen ez dena ez da baloratzen, eta baloratzen ez dena ez da zaintzen, eta honek guztiak, ondorioz, ondare horren galera dakar. Gure herri nimitoetan, gure mendietan eta basoetan, gure hirietan eta gure museoetan daukagun ondarea ezagutaraztea dugu helburu.

Gure inguruetan ditugun gauza harrigarri hauek ez ditugu ezagutu ere egiten, ez bakarrik Euskal Herria mailan, ezta Estatuan ere.

## Txangoak

Azken arloan bidaiak eta txangoak jorratuko ditugu. Askotan hobeto ezagutzen ditugu Habanako kaleak, Egiptoko aztarnak eta Marokoko zokoak gure artean, etxean, ditugun bitxikeriak baino.

Gutariko asko aipatutako hiru adibideetan izan gara, baina zenbat irakurlek arakatu ditu gure aurrehistoriako santutegiak? Zenbat bidaiarik kurritu ditu Euskal Herriko kastroak, erromatar hiriak?

**Honekin guztiarekin batera, bestelako gomendioak ere emango dizkizuegu; hala nola, non egin daitekeen lo, nola joan, lekuen kokapena... Eta ez dugu ahantziko beste atal bat, aurrekoak bezain interesgarria, inportante eta garrantzitsua: alderdi gastronomikoa -non jan eta bapo edan, ahal bada behintzat-.**

Hau guztia gauzatzeko Begirak erabiliko duen bidea atsegina eta erraza izaten saiatuko gara, ez dugu nahi ohiko "txapa" eman. Gauza ulerterrazak, gehiegikerietan sartu gabe.

Bada ere beste asmoa bete nahi izango genukeena hemendik ere: aipatutako lekuak, ibilbideak, erakusketak, eta abar zurekin ezagutzera joatea, irakurle maitea. Honetarako guztirako izango diren txangoak antolatze-ko prest gaude Begira elkartearen.

*Toni Markez*

**Sail bakoitzeko ikurrak honako hauek izango dituzue:**

### Historia



### Kultura



### Artea



### Txangoak



Testuak: Markesa de Pitxurri  
Argazkiak: Amaia Zarate

## Kantauritik Missouriira



sasen dago, baina gehiena Missourikoa da eta ez esan besterik Missouriikoei!

kar as-koa izan: ezta hi-tzik ere ez nekien!!! Hurrengo uda Eskozian pasatu nuen eta bestea Amsterdamen lagun batzuekin. Alemanian ere egon nintzen hilabete bat ikastaro bat egiten. Azkenik, karrera bukatu ondoren Kanadan bost hilabete eman nituen.

Hemen ere bidaiatzeko aukera asko daukat, batez ere Euskal Herritik norbait ni ikustera etortzen denean. Uztailan, adibidez, familia etorri zela eta, turismo pixka bat egin genuen: Kalifornia, Arizona eta Utah-en parke nazionalak bisitatu genituen. Ikasketek ere bidaiatzeko parada ematen didate. Kongresuren bat aitzakiatzat hartuz, Los Angeles, Texas eta Mexikon izan naiz. Dena den, gehien gustatzen zaidan bidaiak gabonetakoa da. El Almendro turroiak bezala, ni ere gabonetan etxera itzultzen naiz. Orduan aldatzen dut Missouri zabala Kantauri euritsuagatik. Itzultzerakoan, oster, Kantauriko kresala nirekin daramat, Missouriiko lainopean turroi hobereenetakoak bezalaxe urtean zehar dastatzeko.

**Atal honetan Estatu Batuetako albiste berri-berriak izango dituzue, bertan bizi den emakume euskaldun baten eskutik, Maite Nuñez-Betelu, "Markesa de Pitxurri".**



Orain dela sei urte iritsi nintzen Estatu Batuetara. Azken lau urte hauek Missourin, Columbia hirian hain zuzen, bizi izan naiz. Missouriiko Unibertsitatea bertan dago, hortaz, hemen bizi garen gehienak ikasleak gara. Baina hau ez da nire esperientzia bakarra Estatu Batuetan. Hasieran bi urte igaro nituen Morgantownen, West Virginian; hemen ikasketekin jarraitzeko eta gaztelaniazko klaseak emateko aukera izan nuen, Gasteizko San Viator Ikastetxeko ingeles klaseak uztea erabaki nuen. Gasteiz utzi nuen sei urte neramatzan bertan bizitzen. Donostiatik Gasteiza joan nintzen Ingeles Filologia ikastera eta ziurrenik bertan jarraituko nuke, hona etortzeko aukera izan ez banu.

Bidaiatzea beti izan dut gustukoa. Karrera ikasten nengoenean ingelesa ikasi behar nuen udak atzerrian ematen nituen. Lehenengo urtean, Londresera, "au pair". Pakistaneko familia batekin bizi nintzen, baina bi hilabete baino ez nuen iraun. Hura zen familia! Libratzen zen bakarra, amona. Asko gusatzen zitzaion nirekin hitz egitea nahiz eta berak ingelesa jakin ez eta nire urdu-a kax-



**E**z nago ziur Gasteizen jende gehiegik dakien Missouri non dagoen. Estatu Batuetan dagoela bai, jakingo dute, baina horretaz aparte seguraski askoz gehiago ez. Baskonia taldeak ez du oraindik Missouri jokalariarik aurkitu; beraz, ulertzekoa da gehienek ez ezagutzea. Gehiengoak Missouri ibaia dela jakingo du agian -Mississippiarekin ez badira nahasten, behintzat-, baina horrez gain, akabo. St. Louis hiria aipatzen badut beharbada batzuk konturatuko dira. Kansas City aipatzerakoan, berriz, berriro oker ibilikoa dira. Kansas City? Hori ez al dago Kansasen? Ba ez, hiri zati txiki bat Kan-



**Izena:** Maite Nuñez-Betelu (ezkerrean)  
**Ezizena:** Markesa de Pitxurri  
**Adina:** 32 ("Dios mio!") - **Jaioterrria:** Donostia

### Ibilbidea:

#### Ikasketak:

- 1995 Masterra (Comparative Literature) West Virginian, EEBBetan
  - Doktoradutza (Romance Languages-Peninsular Literature) egiten dihardut. Tesiaren gaia: Euskal emakume idazlea eta nazionalismoa
- Irakaskuntza:**
- West Virginia Unibertsitatean, gaztelania
  - Missouriiko Unibertsitatean, gaztelania. Horretan dago

#### Hitzaldiak. Beste batzuen artean...:

- 1998 "The Iberian Subaltern: Basque Women Writers" Missouriiko Unibertsitatean
- 1998 "Euskadi-Venezuela: Poetic Rapprochement" Texas A&M International, Laredo, Texasen
- 1999 "Gender and Nation Construction in the Basque Country: Emakume Abertzale Batza" Querétaro, Mexikon

#### Argitarapenak:

The Current State of Research in Fifteenth-Century Literature: Germania-Rumania liburuan: "Catalan-Speaking Regions", hamabosgarren mendeen Catalunya idatzitakoaren bibliografia da. 1996, Kathleen McNerneyrekin batera idatzitako artikulua

#### Bidaia:

Plymouth, Londres, Eskozia, Amsterdam, Alemania (Bremen), Kanada Estatu Batuak (Morgantown-West Virginian- eta Columbian -Missourin-) Literatura ikasketak jarraitzeko eta ingelesa behingoz menperatzeko etorri nintzen. Horretan dago orain.

# KOZKORTUZ

## ➤ Helburuak

- ✓ Esku trebetasunak landu.
- ✓ Material gutxi eta merkea erabiliz, opari polita egin.
- ✓ Irudimena eta sormena bultzatu.
- ✓ ... eta noski, ONDO PASA !!!

## Ahatetxoa

- Adina  
8-9 urtetik aurrera
- Zailtasuna  
Txikia



1. Kartoizko bi borobil moztu. Bakoitzak zulo borobil bat izango du erdian.
2. Artile zati luze bat moztu, bi kartoiak elkartu eta artileari bueltak ematen hasi zulotik sartuz.



3. Geruza potoloa daukagunean, bi kartoiaren artean artaziak sartu eta kanpoaldetik moztu.
4. Artile zatitxo bat moztu eta bi kartoiaren artean sartu ondoren, korapilo bat egin.



5. Burua egiteko aurreko pauso berberei jarraitu, baina oraingoan kartoizko borobilak txikiagoak izango dira.



6. Oinak, begiak eta mokoia egiteko kartoi batean marraztu eta moztu. Margotu edo apaindu ondoren, itsatsi.



Apainketa norberaren esku gelditzen da. Berau aldatuz nahi dituzuen panpintxoak egin ditzakezue. Buruari eragin eta honelako emaitzak lortuko dituzue!!!!



## PLISTI-PLASTA

ASTI LIBREA EUSKARAZ!!!

**FITXA TEKNIKOA:**

**IZENA:** Jokin

**URTEAK:** 8 urte

**IKASTOLA:** "Niño Jesus" Ikastetxea

**MAILA:** Lehenengo hezkuntzako 3.a



Jokin zortzi urteko mutil atsegin eta anekdota kontalari trebea dugu. Arraro samar izan arren ikastolara joatea ez zaio batere axola, eta ez hori bakarrik, asko gustatzen zaiola esan digu... Hona hemen, bada, Geuk prestatu galderei Jokinek erantzundakoa, ustekabe askorekin topo egingo duzue!!!

## “ASTEKO EGUNIK HOBERENA ASTELEHENA DA”

1- Zenbat ordu lo egiten duzu egunero?

- Hamar ordu.

2- Eta asteburuetan, zein ordutan jaikitzen zara?

- Hamarretan.

3- Zer gosaldu ohi duzu?

- Cola-Cao madalenekin.

4- Zure janari faboritoena? - Espagetiak.

5- Eta edaria? - Ura.

6- Disko bat? - Chayan-en azkena.

7- Ikasgai gogoko bat? - Heziketa.

Eta gustuko ez duzuna? - Ingurunearen ezaguera.


8- Andereñoak edo maisuak? - Andereñoak.

9- Non dago Ekuador? - Amerikan.

10- Piropo bat botatzen dizutenean, zer egiten duzu? - Oihukatu, eta bakean utz nazatela!

11- Abesti bat? - Chayanenatariko bat.

12- Bizikleta lehen aldiz hartu zenuenean, erori



# GASTEIZ IRUDIA

Uxune (7 urte)  
Toki Eder  
Ikastola

al zinen?

- Bai eta oraindik ere erortzen naiz.

13- Gogoan duzun abentura edo anekdota bitxiren bat? - Nire anaiarekin jolasten, gorantz altxatzen den ohe horietako bat erori zen eta hanka harrapatu zidan.

14- Alkate bazina zer egingo zenuke? - Kaleak hobetu espaloi gehiago jarriz eta motor kopurua gutxitu.

15- Animalia bat? - Lehoia.

16- Zure hobby handiena? - Futbolearen jolastea.

17- Astero ikastolara zenbat egun joango zinateke? - Bost egun. Eta zenbat ordu egunero? - Bost ordu.

18- Nagusia zarenean zer izan nahi duzu? - Futbolaria.

19- Ze hiru gauza eramango zenituzke irla batera? - Janaria, edaria eta baloi bat.

20- Asteko egun hobereena? - Astelehena.

21- Ikastolako atsedendian zein da zure joko gogokoena? - Futbola.

22- Klase amaieran zer nahiago duzu, txirrina edo abesti bat? - Txirrina.

23- Etxeko lanetatik zeintzuk egin ohi dituzu zuk? - Jostailuak jaso eta landareak ureztatu.



24- Nola egiten da patata tortila? - Ez dakit, baina nohizbehinka amari trufak egiten laguntzen diot.

25- Nolakoak dira marteko biztanleak?

- Berdeak, hiru begirekin, hiru hankarekin eta buruan kapsula bat daramate.



## Lehiaketa

# txiki park

**SARIA: Txiki Park-erako 2 sarrera**

Urtarrileko zein egunetan zozketatzen da zerri bat eta jaten da txokolatea?  
Nola du izena egun honek?

**Bidali erantzuna gure helbidera (4. orrialdean) izena eta Telefonoa zehaztuz**



Ez gehiago itxaron,  
egin zaitetz  
gure klubeko bazkide

**Domingo Beltran kalea, 53 - 01012 Gasteiz - Tnoa. 945 20 00 02**

# ZURE HARATEGIAK

*Jose Luis*

## GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



## XABIER AIZPEOLEA



### HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97

*gure lurraldeko haragi  
samurretan espezialduak*



**adaka**   
**madinabeitia**



**Floridako  
altxorra !**

**35**

**altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ**

# LEGUTIOKO OKUPAK

Testua:  
Edurne Begiristain.  
Argazkiak:  
Artxibo eta  
Nuria Gonzalez.

## Urtebeteko ametsa

**1998ko abenduaz geroztik, Legutioko herriak bizilagun berriak izan ditu duela gutxi arte. Bi gasteiztar gazte dira, eta herriaren sarreran dagoen etxe handi batean bizi izan dira. Duela urtebete okupatu zuten Aldundiaren jabegoa den etxe hori. Tamalez, Josu eta Diego okupen ametsak aurreikusitako amaiera izan du: azaroan Aldundiaren aterazte eskutitza jaso eta gaur jada ez daude bertan. Etxe okupatu baten istorioaren bukaera da hau, baina istorio polita eta interesgarria denez, merezi du kontatzea.**



**G**azte gehienoi gertatzen zaigun bezala, etxe bat erostea ezinezkoa zitzairen Diego eta Josuri. Euren soldatek ez zieten horrenbesteko ematen, eta horregatik okupatzearen ideia ona zela pentsatu zuten. Eta halaxe egin zuten. Gasteizen ezezik, inguruko hainbat herritan ere hutsik zeuden etxeen bila aritu ziren: Otazun, Urbinan, Otxandion, Zaitegin..., azkenean Legution etxe handi bat ikusi zuten arte. AHTren aurkako akanpada bertan egin zenean ezagutu zuten etxea, eta baita okupatzearen ideia bururatu ere.

Etxea berez gustatzeaz gain, bikoteak bazeukan bestelako arrazoirik bertan bizitzen geratzeko: "Aldundiarena izateak, eta ez partikular batena, garrantzi handia dauka guretzat. Izan ere, etxe hau teoriar arabar guztiona da, ezta? Gainera oso bazter ederrean kokatuta dago, mendi eta urtegiez inguratuta... Edozein okuparen ametsetako etxea da", azaltzen du Josuk. Bestaldetik,

**Oharra: Erreporaje hau okupek etxea utzi baino egun batzuk lehenago egin zen.**

## "BANDERA NEGRA",

### 4 DATU

#### Okupazioaren data:

1998ko abenduaren 6a.

Kokapena: Legutioko El Carmen kaleko 16an. Gasteiztik Bilbora doan N-240 errepidean.

Egitura: Lorategi handi batez inguratutako bi solairu eta ganbara bateko etxea da. Beheko solairuan upelategia, liburutegia, ordenagailua eta interneta dituen bulegotxo bat, tailerra, sukaldea, komuna eta txakurren txokoak daude. Goiko solairuan, hiru logela, areto nagusia, musika ensaiatzeko gela -bateria eta guzti- eta beste komun bat. Eta goialdean, 350 metro karratuko ganbara erraldoi bat.



Josu Martin eta Diego Garcia



"borroka eta erresistentziarako" gunea sortu nahi zuen bikoteak, eta beraien aburuz, neurri handi batean hori ere erdietsi dute.

#### OKUPAZIOAREN EGUNA

Etxea abenduaren 6an okupatzea ez zen kasualitate hutsa izan. Egun horretan Espainiako Konstituzioa ospatzen da, eta hortaz, jai eguna izaki, okupatzeko jende gehiagoren laguntza izango zutela pentsatu zuten, "era horretan irtenarazte baten aurrean biok bakarrik ez egotea ziurtatzen genuen", dioskute.

Lorategi batez inguratutako bi pisuko etxe handia da okupatutakoa. Eta hain handia izateak lan dezente eman zien okupeari garbitu, eraberritu eta konpontzeko orduan. Izan ere, okupatu zutenean etxea nahiko egoera kaxkarrean aurkitu zuten: bigarren solairuko zolua ustelduta zegoen, ez zuten argirik ezta urik ere, logela asko aterik eta lehiorik gabe zeuden... Horretaz gainera, hildako arratoi eta txori asko aurkitu zituzten barruan, eta lorategiak, lorategia baino gehiago, oihana zirudien.

"Aldundiarena izateak, eta ez partikular batena, garrantzi handia dauka guretzat. Izan ere, etxe hau teoriarabargar guztiona da, ezta?"

Hortaz, okupek egin behar franko izan zituzten etxea txukun jartzeko, baina apurka-apurka polita eta eroso uztea lortu zuten. "Nahiko dirutza gastatu genuen guztia konpondu ahal izateko; argi instalazio osoa jarri genuen, etxea goitik behera margotu, hormen arrailak konpondu, lorategia itxuroso jarri...". Esperientzia polita izan zela onartzen du bikoteak, baina polita bezain gogorra. "Hotz handia egiten zuen okupatu genuenean, eta horregatik elkartasuna ematera etorri

#### **DAVID GOMEZ, Legutioko bizilaguna. 26 urte.**

- Etxe okupatuan egon al zara? Okupak ezagutzen al dituzu?

Bai, okupatu zutenean etxean egon nintzen oku-

pak ezagutzeko eta laguntza eskaintzeko. Orduz geroztik, bideo emanaldiak, hitzaldiak, eta horrelakoetan izan naiz. Okupekin harreman ona daukat, eta oro har herriko gazteok "rollo" ona daukagu beraiekin.

#### **-Hain gazteak ez diren bizilagunek zer deritzote?**

Herrian denetarik dago. Badira batzuk paso egiten dutenak. Beste batzuek herriari bizitasuna eta mugimendua eman diotela iritzi dute. Eta gutxiengoek diote herria zikintze-

ra eta arazoak sortzera etorri direla.

#### **-Ba al zenekien aterarazte eskutitza jaso dutela?**

Ez, ez nekien. Baina guztiok imajinatzen genuen egunen batean hau gertatu zela. Pena bat da.



# "Izen horrekin askatasuna, kapitalismoaren aurka-ko erresistentzia eta borroka adierazi nahi izan dugu"

tako lagun batzuek joan beharra izan zuten oso gaizki ari baitziren pasatzen". Eurek, ordea, han jarraitu zuten beraiena zena defendatuz.

## "BANDERA NEGRA"

Etxea atontzen ari ziren bitartean, izen bat jarri behar ziotela pentsatu zuten. Azkenean "Bandera Negra" ipini zioten. Izen horren esanahia Diegok azaltzen digu: "bandera beltza iraultza egiten duten zapalduen bandera da. Izen horrekin askatasuna, kapitalismoaren aurkako erresistentzia eta borroka adierazi nahi izan dugu".

Eta etxearen izena bezala, okuparen filosofia ere ildo beretik doa. Hau da, etxea ez zen soilik bizitzeko toki gisa okupatu, borroka gune bezala ere okupatu zela jakinarazten du bikoteak. Ideia horretatik abiatuz, Bandera Negran jardunaldi eta ekintza desberdin anitz jarri dira martxan: gai ezberdinei buruzko bideo emanaldiak, presoek egindako koadroen erakusketak, errepresioaren aurkako kontzentrazioak Guardia Zibilaren koartelaren aurrean eta abar. Ekintza hauek adin eta era guztietako jendearen arreta piztu dute; kontzentrazioetan herriko

gazteen presentzia handiagoa izan bada ere, erakusketetara, esaterako, nagusiagoak diren Legutioko bizilagunak hurbildu dira.

## ARAZOAK

Jakina da etxe okupatu batean bizitzea ez dela gauza samurra, ez bakkarririk bizi egoeratik, normalean poliziarekin izan ohi dituzten arazoengatik baizik. Eta Bandera Negra etxea ez da salbuespena izan. Kontuan izanda Guardia Zibilaren koartela ondoan dagoela, Legutioko okupek behin baino gehiagotan liskarrak izan dituzte "benemeritarekin". Azken boladan egoera nahikoa lasaia izan den arren, duela hilabete batzuk Guardia Zibilak ia egunero bisitatzen zuen etxea. Diegok azaltzen digunez, "behin Sansomendiko konboiak agertu eta etxe osoa inguratu zuten subfusila eskutetan zutela, baina ez zen ezer gehiago gertatu. Beste behin etxea berriz ere inguratu, Josuren kotxea miatu eta gauzak lurrera bota ondoren, irainka eta bultzaka hasi zitzaizkion, susmargarria zen zeozer aurkituz gero koartelera eramango zutela mehatxatuz".

Baina, duda barik, arazo guztien artean larriena azaroan jasotako Aldundiaren aterarazte -dagoeneko atera dira- eta DERRIBO abisua izan da. Josuk eta Diegok hasieratik argi asko zuten okupazioak ez zuela betirako iraungo, eta orain gertatutakoa lehenago edo beranduago jazoko zela. Halere, berri txar honek ustekabeen harrapatu du bikotea. Alta, okupek erresistentziarako gogo eta indar nahikoak dituztela baieztatzen dute: "ahal dugun neurrian hemen jarraituko dugu, gurea dena defendatuz", zioskuten.



**Hauxe da Arabako Foru Aldundiak Legutioko okupek igorritako eskutitza. Bertan azaltzen denez, Legutioko bizilagun batzuen salaketa eta egin asmo duten errepide-lan batzuk direla medio erabaki dute etxea utziaraztea. Hala ere, Diegok azaldu digunez, erabaki horrekin ezin dituzte etxetik bota. Izan ere, Bandera Negratik kaleratuak izateko epailearen erabakia beharrezkoa da, alegia, epai judizial bat. Horren ezean, beraiek ez direla etxetik joango jakinarazi digu Diegok.**

*Oharra: Etxea utzi baino lehenagoko hitzak*



## AGUR ETA HURRENGO ARTE!

Geu aldizkariko urtarrileko alea ixtear zegoenean okupek etxea uztea erabaki zutela jakin genuen. Abenduaren 15ean izan zen, aterarazteko epea amaitzen zenean. Eurek, aitzitik, duten filosofiari eutsiko diote eta egoki ikusten dutenean beste etxe bat okupatuko dutela garbi




dute. Zorte on, beraz, hurrengoarekin, bikote!

# Uste zena baino gene gehiago

**I**ncyte Pharmaceuticals Incorporated enpresako ikerlariak jakitera eman dutenez, gizakien gene-kopurua aurrez uste zena baino handiagoa da; ondorioz, genetikarazoei irtenbidea eman nahian ari diren ikerlariak etorkizuna belztu egin zaie. Aipatutako enpresako ikerlarien arabera, giza gorputzean 140.000 gene inguru egon daitezke, eta ez, aurrez uste zenez, 80.000 eta 100.000 generen arteko kopurua.

Jakina denez, geneek giza gorputzeko zelulak programatzeko zeregina duten proteinak sortzen dituzte. Herentziaz jasotzen diren gene horietako batzuk bere kabuz gaixotasunak eragiteko gai dira, baina beste gaixotasunen jatorria gene-multzoko desberdinetatik sor daiteke. Gaixotasun horiei buruzko ikerketak are eta zailagoak izango dira gene-kopurua zenbat eta handiagoa izan, geneen arteko harremanak gehiago izan daitezkeelako. Orain arte, herentziaz jasotako gaixotasun batzuen geneak aurkitzea ez da oso korapilotsua izan. Gaixotasun batzuetan —presio altua edo asma adibidez—, gene batek baino gehia-



gok du eragina, eta aurrerapausoak eman badira ere, ikerlariak nahikoa lanekin ari ziren. Incyte Pharmaceuticals Incorporated enpresako ikerlariak egin dituzten kalkuluak egiaztuko balira, hemendik aurrera zientzialariak arazo gehiago izan ditzakete.

Zientzialariak diotenez, gizakia-  
ren gene-multzoko osoak 3.000 milioi ADN molekula-bikote izan ditzake. Hala ere, gene-kopurua —ADNaren sekuentzia zehatzak— kalkuluz ataratako zenbakia da, ez baitago jakiterik zehaztasun osoz ADN sekuen-

tziak noiz hasten eta noiz bukatzen diren. Incyte Pharmaceuticals Incorporated enpresako ikerlariak, beren kalkuluak egiteko bi sistema erabili dituzte. Batetik abiatuz gizakia-  
ren gene-kopurua 130.000 dela atera zen; besteetik, berriz, 143.000. Zerbaki biak alderatuta 140.000ko batezbestekoa atera dute zientzialariak.

Giza Genoma proiektuan lanean ari diren zientzialariak ere, kontuan hartu beharko dute Incyte enpresako ikerlariak egin duten kalkulua. Izan ere, Giza Genoma proiektua 2003. urtean bukatzekoa zen. Dena den, data hori, giza gorputzean 80.000 eta 100.000 gene inguru egon zitezkeela pentsatuta ezarri zen. Giza gorputzeko geneen mapa egitea helburu duen Giza Genoma proiektua 1990. urtean jarri zen abian, eta dagoeneko 30.000 gene identifikatu eta aurkitu dituzte proiektuan lanean ari diren 12 herrialdek.

## Espaziora!... itsasotik abiatuta

**A**terakako kontaketa, 3, 2, 1,...0, badoa espaziuntzia. Horrela-  
ko irudiak arrunt bihurtu dira, oso maiz gertatzen baitira. Hemendik aurrera, berriz, berrikuntza ere irits daiteke espaziuntzien jaurtiketen alorretik, horretarako gero eta gehiago itsasoa erabiliko baita. Zuzenago esanda, itsas-plataformak erabiliko dira.

Sea Launch proiektuak aurten izan du estreinaldia —martxoan, Zenit espaziuntziaren jaurtiketarekin—, baina etorkizunari begira, badirudi ontziak espaziora bidaltzeko modurik erabiliena izango dela. Izan ere, itsas-plataforma mugikorra izan daitekeenez, iparrarekiko 0°-tan koka daiteke, Lurreko Ekuatorean. Kokapen hori satellite geoestazionarioak jaurtitzeko egokiena da, erregaia aurrezteaz gain, satelliteen bizitza luzatzen baita. Sea Launch proiektuak argia ikusi zuen arte, Ekuatoretik gertuen zegoen jaurtiketarako gunea Kourukoa zen, iparrarekiko 5°-tara. Dena den, eragozpenak era baditu itsas-plataformetatik jaurtitzek, batetik muntatzea garesti izatea, eta bestetik itsasoaren egoerak.





**APAINDURA**

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

***URTEBERRI ON  
HARPIDEDUN GUZTIEI!!***

**EROSKIREN ESKUTIK ABENDUAN ZOZKETATU GENITUEN  
GABON SASKIEN IRABAZLEAK HAUEK IZAN DIRA:**

**GABON SASKIA: MILAGROS GURRUTXAGA  
GABONETAKO LOTEA: PILARE RUIZ**

**ZORIONAK!!!**

**GALDERA: Nola da euskaraz... Plaza de la Virgen Blanca?  
ERANTZUNA: Andre Maria Zuriaren plaza**

ERANTZUN ASKO OKERRAK IZAN DIRA: "Andra Mari Zuriaren enparantza", "Andra Mari Zuria Plaza"... Ez al duzue ba gogoratzen apirilean Geu Elkartearen ekimenez Euskal kale izendegia argitaratu eta banatu zela Udal Gazetarekin batera ? Erneago ibili hurrengoan!!!



Paula Camara, xake jokalaria.

c d e f g h

XAKE

MATE

- Zergatik hasi zinen xakean eta ez beste jolas edota kirolen batean?

- Ez dakit, duela asko hasi nintzen jolasten, sei urte nituenean, eskolaz kanpoko ekintze-tako bat zen eta gurasoek klaseko batekin batera apuntatu ninduten. Orduan fitxak nola mugitu ikasten hasi nintzen. Garai hartan ez nekien oso ondo xakea zer zen, baina endredatzea gustatzen zaidanez...

- Xakean jolasteaz gainera, zer gehiago egitea gustatzen zaizu?

- Futbolean jolastea asko gustatzen zait, eskola egunetan jolasordu guztietan aritzen naiz, klasekoekin eta lagunekin. Beharbada, ez naiz oso ona, baina postu guztietan jolas

dezaket, hori bai, atezain bezala oso txarra naiz.

- Itzul gaitezen xakera. Zure karre-rako lau urteetan txapelketa askotan parte hartu duzu, eta arrakastaz. Kontaiezaguzu zure abentura:

- Ba Arabako Txapelketatik Munduko Txapelketara. Arabako Txapelketatik Euskadiko Txapelketara lau besterik ez ginen pasa. Euskadikoan lehenengoa gelditu eta Espainiakora beste lau pasa ginen. Horretan zazpigarren postua lortu nuen eta hortik Munduko Txapelketara.

- Eta horraino iristeko, denbora asko pasako zenuen tableroaren

Paula Camara 10 urteko neskato gasteiztarra dugu. Lau urte daramatza haurren oso ohikoa ez den zaletasuna praktikatzeko, xakea. Antonio Lopez de Gereñu Ikastetxean egin zituen lehenengo mugimenduak sei urte besterik ez zituenean. Gaur egun Paula Munduko Txapelketa batean parte hartzerira iritsi da eta argi dauka zein den bere helmuga: Kasparov-i irabaztea, alajaina!

Zaldia norantz mugitu pentsatzen ari ez denean, zapatilak jantzi eta futbol zelaian gora eta behera korrikan ibiltzea gustatzen zaio. Bere aurpegi irribarretsu eta betaurreko txikitxo-en atzean, buru arina dudarik gabe!

aurrean.

- Astean egun bat entrenatzen dut: taktikak lantzeko fitxa batzuk bete eta partidaren bat jolasten dut ondoren. Hori eskolan, baina etxean egunero egiten dut zerbait. Patxi Criado da nire entrenatzailea, eta orain xake taldean bederatzi lagun gaude, mailetan banatuta.

**HELBURA: KASPAROV**

- Haur gehienek duzue pertsonaia gogokoren bat, ziur zurea xake jokalaria dela.

- Bai, gehien gustatzen zaidan xake jokala-

"Ez dut oso ondo ulertzen neskak neskekin eta mutilak mutilekin jolastearena..."

*ria Kasparov da. Hoberena da, baina normala da, ordu asko eta asko ematen baititu tableroaren aurrean.*

- Gizonik hoberena, Kasparov, baina zer berri dago emakumezko xake jokalariez? Neskari al dago xakean jolasten?

- Bai, neska nabikoa gaude. Orain arte esku hartu dudana txapelketetan neskok nesken kontra eta mutilek mutilen kontra jolastu dugu. Normalean bala izaten da.

- Eta ez al zaizu arraroa egiten banaketa hori? Jakina da orokorrean mutilek ahalmen fisiko zabalagoak dituztela nesken parean, baina xakean ez da ahalegin fisiko handirik behar. Zergatik orduan banaketa?

- Ez dakit, beharbada mutilek guk baino denbora gehiago daramatelako jolasten, nire kasuan. Baina ez dut oso ondo ulertzen.

- Nori gustatuko litzaizuke irabaztea, zer lortu nahi duzu etorkizunean?

- Irabazi, Kasparov-i irabazi nahi nioke, baina klaseko mutil bati irabaztearekin konformatu egiten naiz. Gainera, Munduko Txapelketa errepikatzea gustatuko litzaizaidake, oso dibertigarria izan da beste berrialde batzuetako haurren kontra jolastea eta beraiekin egon abal izana. Nire bizitzako partidarik luzeena ban jolastu dut, bost ordu iraun zuen.

"Nire bizitzako partidarik luzeena Munduko Txapelketan jolastu dut, bost ordu iraun zuen"

**"AURKAKOIA DESPISTATZEA  
ERRAZA DA..."**

- Noiz duzu hurrengo txapelketa?

- Urtarrilean Errioxako Txapelketan parte hartuko dut, horregatik, orain gogor entrenatzen ari naiz, hori bai, asko nekatu gabe. Ez naiz egun guztia xakean pentsatzen egoten, ordubetegoten naiz, eta gero lagunekin!

- Partida baten aurrean, zer egiten duzu urduritasuna gainditzeko?

- Egia da oso urduri jartzen naizela, baina saioak hain luzeak direnez, azkenean abazten zaizkizu nerbioak... Aurkakoa urduri jartzea, depistatzea, irabazteko truku ona da. Batzuetan, kontrakoaren arreata desbideratzeko jarrera arraroak hartzen ditut besokekin, buruarekin... Baina oso gutxitan.

- Paula, zer eskatuko diozu Olenztzerori, xake jolas informatizatu horietakoren bat, ala dagoeneko baduzu horrelakorik?

- Bai, etxean badut haren kontra jolasteko ordenagailurik, baina gutxitan irabazten diot, oso ona da. Horregatik, Olenztzerori xakeari buruzko liburu bat eskatuko diot ea gehiago ikasten dudana. Errege Magoei atezain-eskularru batzuk eskatuko dizkiot.

**Testua: Ainhoa Ferron  
Argazkiak: Edorta Sanz**



**XAKEAN,  
NESKAK ETA  
MUTILAK**

✓ **Ikasgairik gogokoena?**  
- Matematikak.

✓ **Pieza zuriak ala beltzak?**  
- Zuriak.

✓ **Xake jolaseko pieza bat bazina, zein izango zinateke?**  
- Erregea.

✓ **Xakean, neskak ala mutilak?**  
- Biak.

✓ **Gazia ala gozoa?**  
- Gozoa, noski.

✓ **Kanta bat:**  
- "Tell me why", Backstreet Boys-ena.

✓ **Futbol talde bat.**  
- Athletic, Julen Guerrero jokalaririk onena da. Alaves ere gustatzen zait.

✓ **Pelikula bat:**  
- Titanic.



# herririk herri, hizkuntzaz hizkuntza

Testua eta argazkiak:  
Bahia Mahamud Awah

## Mendebaldeko

## Saharan, Espainiako kolonia ohian, liberalizazio prozesuak egindako bide luzearen kronika, iraganetik gaur egun arte

**M**endebaldeko Sahara afrikar kontinentearen ipar-mendebaldean dago eta 285.000 km<sup>2</sup>-ko lurraldea da. Iparraldeko mugan Maroko du, ekialdeko mugan Aljeria, hegoaldean eta hegoaldean Mauritania eta mendebaldean Ozeano Atlantikoa.

XIX. mendearen bukaera aldera izan zituen Espainiak Mendebaldeko Sahararekin lehenengo harremanak, 1884an Berlinen (Alemania) mendebaldeko potentziak bildu zirenean eta lehengaien aberastasuna ustiatzeko kontinentea banatu zutenean.

Okupazio-prozesua bera 1930eko urteetan hasi zen, baina okupazioa modu berezian egin nahi izan zen, sahararrek merkantziak trukatzera zetozen espedizionarioak zirela sinestartazi nahi baitzen, poliki-poliki lurraldea indarkeriarik gabe konkistatzeko.

Garai horretan saharar gizarte Berrogeien Esku edo Batzordearen zuzendaritzapean antolatuta zegoen, gizarte-maila guztiak biltzen zituen

adar armatu eta politikoa horixe baitzen. Atzerriek egindako horrelako okupazioen aurrean abangoardien erresistentzia berehala sortuko zen.

1884ko azaroan, Espainiako Armada Dajla penintsulan (Villa Cisneros) sartu zen Emilio Bonelli kapitainaren gidaritzapean eta, hala, gorputz espedizionarioko bertako intendentziak zuzendutako salmenta-gune garrantzitsua ezarri zen. Sahararrak ez zituen erakarri eskaintza horrek eta kolonizazioaren hasieran altxatu egin ziren. Frantziak, artean auzoko herrialdean, Mauritania, oinarriak ondo sendotu gabe, ondo ulertu zuen Espainiarekin aliatu beharra zuela eta, hala, biek bat hartuta, saharar erresistentzia sunsitztea lortu zuten Ecoubillon izeneko operazioan.

Mendebaldeko Saharan Espainiaren kolonizazioak mende bat baino gehiago iraungo zuen, 60ko hamarkada amaiera arte. Orduan erresistentzia nazionala berpiztuko da, baina beste izen bat hartuko du: Saharako Abangoardia Mugimendua, Sidi Brahim Basiri kazetariak zuzendua. Altxamenduari gogor egingo dio aurre Espainiak 1970eko ekainaren 17an eta Franco-ren Legioak armen bidez saharar herriaren nahia eta asmoak zapuztuko ditu; ehundaka gizon-emakume kartzelaratuko dira eta beste hainbat desagertuko, horien artean Sidi Brahim Basiri.

Egun hori baino lehenago, NBEk 1514. ebazpenaren bidez saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea defendatu zuen eta, aldi berean, Espainiari biztanleriak bere etorkizuna erabaki zezan erreferenduma egiteko exijitu zion.

1973ko maiatzaren 10ean Fronte Polisarioa, saharar guztien nahi eta gogoen legeko ordezkari bakarra,



osatu zen. Eta handik hamar egunera soldadu-talde frankisten aurka hainbat toki desberdinetan lehenengo ekintza armatuak egin zituen. 1975eko azaroaren 14an, saharar herriari bizkar eman ez, Espainiak, Marokok eta Mauritaniak Madrilgo ituna sinatu zuten, lurraldea bi herrialdeen artean banatuz. 1976ko otsailaren 26an Espainiak azken soldaduak atera zituen handik eta zehatz-mehatz 1976ko otsailaren 27an Polisarioak Saharako Errepublikari Arabiarra deklaratu zuen. Berau esku-bide osoko herrialde gisa onartu zuten Afrikako Batasuneko herrialdeek eta nazioartean begirune handiz ikusi zen.

Hogeita hiru urtetan gerran ibili ondoren eta hainbat erbesteratze izan ondoren, Nazio Batuek Saharako gobernuaren eta Marokoko monarkia-aren arteko gatazka konpontzeko hitzarmen bat egitea lortu zuten. Askotan atzeratu izan da James Baker bitarteko hartuta onartu zenetik. Marokok jarri izan dituen oztopoak medio ezin izan da orain arte erreferendumik egin, lehenago edo beranduago lurralde hau galdu egingo duela bai baitaki. Erreferenduma egiteko pentsatu zen data 2000. urteko uztailearen 31 da. Nazio Batuen Erakundeko Idazkari Nagusiaren ordezkaria, William Eaglton amerikarra, saiatu da azkenaldian kontsulta ahalik eta lasterren egin dadin eta Houston-go klausula guztien ezarpena errespetatu dezaten.

**Mendebaldeko Saharako historia, kultura, gizarte, ohiturak... alerik ale Bahia kazetari sahararren eskutik.**

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Izena:  
Bahia Mahamud Awah  
Jaioterria:  
Mendebaldeko Sahara



Langilea: kazetaria.  
Egindako ikasketak:  
telekomunikazioak,  
informatika eta irratidifusioa.

Esperientzia: komunikazioen esparruan  
hamaika urteko esperientzia eta sei urte  
baino gehiagoko esperientzia informazio-  
aren munduan, bai irratiz eta bai idatziz.  
Sahara Libre egunkari (Polisarioaren  
organo ofiziala) zutabegilea eta Maiatzak  
10 gazteen aldizkarian kolaboratzaile.

Telabista digitalari buruzko masterra bukatzeaz Galiziako Santiago de Compostelako Unibertsitatean.

Testua: Josune Velez de Mendizabal  
Argazkiak: Xotsa Gür

# ELEKTRONIKOA DOINU EUSKAL HERRIAN HEDATUZ DOA BED ON TOUR!!



**Donostian hasi, Heletan  
bukatu eta Gasteiztik ere  
pasa da Basque Electronic  
Diaspora taldearen lehen dis-  
koa ezagutzera eman duen  
tourra. Londres, Paris eta  
Buenos Airesen bizi diren  
disc-jockey euskaldunek Bed**

**izeneko albumarekin Euskal Herriraino hurbildu nahi izan dituz-  
te musika elektronikoaren azken urratsak, baita lortu ere. Xano  
+ Em. C., Basque Dub Foundation, Fin de Siecle eta Voodoo Muzak  
taldeen egitasmo berri honek arrakasta handia erakustearekin  
batera salmentak jada gainditu ditu hiriburu arabarrean.**



Esan Ozenki zigu-  
luaren pean dato-  
rren doinu elektro-  
nikoak dozena bat  
pieza biltzen ditu

bere baitan eta Euskal Herrian hain ezezaguna den musika mota hau garatzea du helburu. Basque Electronic Diasporak Parral tabernan eskainitako zuzeneko emanaldiak Xano bertako partaide denarekin mintzatzeko aukera ezin hobea eman zigun. Iparraldeko dj-ak atseginez argitu eta erantzun zituen talde berri honen gainean gehiago jakiten laguntzen diguten zalantzak eta galderak.

- Nortzuek osatzen dute Bed?
- Ekimen hau Bixente Iriartek, Iñaki Yarrikut eta Isa Suarezek 98.ean burutu zuten arren, bidean musikari on asko burbildu zaizkie: Fin de Siecle, J-Rô, bxt, Templ.a.r.

Nutcase, K-ababa, Basque Dub Foundation, Voodoo Muzak eta Estupendo. Artista hauetatik batzuk Euskal Herrian lanean ari bagara ere beste batzuk Londres, Paris eta Buenos Airesen bizi dira.

- Zer da musika elektronikoa?  
- Azaroko hilean eskainitako zuzeneko emanaldietan musika elektronikoa zer den erakustea bilatu dugu. Egun, ezagupen faltaren ondorioz badago jendea oraindik musika hau diskotekekin lotzen duena. Jendea erratuta dago, gure musika ordenagailuz konposatzen dugu estilo ezberdin batekin eta ez dugu inolaz ere diskotekako musika egiten.

- Zer da disko honek biltzen duena?

- Beno, batetik bertan gauden artista guztiok Euskal Herriatik kanpo lortu dugun esperientzia erakutsi nahi dugu. Izan ere, denok euskal nortasuna eta helburu bera dugu amankomunean. Bestetik, disko honek hamabi kanta ditu bere baitan, gebienak instrumentalak eta espreski lan honetarako eginak.

- Zein da egitasmo hau aurrera eramateko xede nagusia?

- Lehenik eta behin azpimarratu behar da musikari hauek atzerrira joan zirenean Euskal Herrian musika elektronikoa ez zela ezagutzen, egun, zoritxarrez, egoera beraren aurrean gaude. Nabiz eta musika mota hau mundutik zehar erostea eta entzutea erraz den, Euskal Herrian, berriz, musika elektronikoa inguruan ezer gutxi dago. Horre

"Jendea erratuta dago, gure musika ordenagailuz konposatzen dugu estilo ezberdin batekin eta ez dugu inolaz ere diskotekako musika egiten"

# Lehiaketa



**ENTZUN!**  
Musika aldizkaria

Entzun! Musika aldizkaria hileroko zure etxean jaso nahi duzula? Ba... bidali lehenbailehen galdera honen erantzuna -izena (ALDIZKARIKO ETIKETAN agertzen dena) eta tele-

fono zenbakiarekin batera- Geu aldizkarira (helbidea, 4. orrialdean), Entzun! aldizkariko urte osoko harpidetza zozketatzen baitugu berau asmatzen duzuen artean.

**Duela urtebete, hau da, 1999ko urtarrilean, zein musika talde elkarrizketatu genuen Geu Gasteiz aldizkarian?**

**\*EMAITZA ETA SARITUA DATORREN ALEAN (OTSAILA)**

**\*LEHIAKETAN ESKU HARTZEKO HARPIDEDUN IZATEA EZINBESTEKOA DA (ETIKETAREN IZENA ZEHAZTU).**



# "Lan honetan hainbat musikari bildu gara musika elektronikoa ezagutarazteko asmoz"

gatik, lan honetan hainbat musikari bildu gara musika elektronikoa ezagutarazteko asmoz.

- Beraz, ba al dago Euskal Herrian musika mota hau garatzeko aukerarik?

- Bai, zergatik ez, horretan gaude. Doinu elektronikoak munduan barrena bedatu dira, eta Euskal Herrian ere horrela izango da. Izan ere, lehen disko honetaz gain, bigarren bat kaleratzean ere pentsatzen ari gara, bertan oraingo honetan kanpoan gelditu diren musikariek parte hartuko lukete.

- Gasteizen eskaintako aurkezpenean zein-nolako erantzuna jaso zenuten?

- Leku gehienetan bezala, ezezaguna den gauza baten aurrean jendea tentu handiz eta batez ere jakinmin bezala burbiltzen da, eta Gasteizen ere hala gertatu zen. Gasteiztarrek zuzeneko emanaldi osoan hain izan ziren gure musikaz gozatzen, nabiz eta dantza bakar batzuek besterik ez zuten egin. Gustatu zitzaizela pentsatzen dut, eta benetan pozten naiz.

## BED KOLEKTIBOAREN SORTZAILEAK

Lehen diskoarekin arrakasta itzela lortu du orain dela bi urte eskas Bixente Iriartek, Isa Suarezek eta Iñaki Yarrantuk sortutako kolektiboak. Jatorriz euskaldunak diren musikari hauen guztien helburua musika elektronikoa ekoiztu nahiz garatu nahi duen edonori laguntzea da. Hortaz, egitasmo honi ekiteko mundu musikalean jarduera zabala izan duten hiru artista hauek ezinbestekoak izan dira.

**BXT-BIXENTE IRIART** 1972. urtean Donibane-Garazin jaio zen eta egun Parisen bizi da. Hamasei urterekin jada musika munduan zebilen, non eta Izan, Txakun eta King Mafrundi euskal taldeetan baxua jotzen. Baina 90. hamarkadan reggae musikaren eraginez "digital dub" mugimendua ezagutu zuen. Harrezkerotik, musika elektronikoa jorratzen hasten da. Bere curriculumean, orain dela bi urte "Comédi Cruelle" deritzon filmaren musika, eta kaleratzearen duen bere lehen albuma, "Soupçons".

**BDF-Basque Dub Foundation** denaren atzean Iñaki Yarranturen izena ezkutatzen da. Iñaki, bilbotarra jatorriz, Londresen bizi da egun. Bera BDFren ekoizle eta konpositore izateaz gain, Londreseko hainbat taldetako baxujolea ere bada. 1998.ean Basque Dub Foundation sortu zuen bilbotarrak eta urte berean ere "Sustraidum Roots Dub" bere lehen diskoa izango zena kaleratu. Iñaki sarritan dub eta reggae artistekin kolaboratzen ibili ohi da. Bestetik, European kontzertuak eta mintegiak antolatzen ditu nazioarteko eremuko makina bat artistarekin, hala nola, The Chemical Brothers, Linton Kwesi Johnson, eta abar.

**FIN DE SIÉCLE**- Isa Suarez, Donibane-Lohitzuneko sortzez, Londresen bizi da orain dela zenbait urte, bertan Fin de Siécle taldea 1992. urtean sortu zuen. Orduetik, zuzeneko emanaldiak eskaini ditu bai Erresuma Batuan bai Europan. Talde honek dub, afrikar, drum'n`Bass, techno eta jazz estiloen nahasketa jotzen du. Isa Suarezek 95. urtean beren lehen albuma izango zena kaleratu zuen, "End of the Century". Une honetan, aldiz, bere hurrengo lana prestatzen ari da Isak Cyror Zedechiah perkusiojole afrikar eta Dave Maguire konpositorearekin. Honetaz gain, musikari euskaldun honek film, dantza eta multimediarako lanak ekoizten ditu.

MERKURIO-KADMIODAN %0a

**CEGASA PILAK INDARTSUENAK ETA EKOLOGISTENAK**

**CEGASA INTERNATIONAL ALCALINA**



**CEGASA INTERNATIONAL**

TOP ENERGY  
ALKALINE

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.  
Artapadura, 11 - Apdo. 355  
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

**HEGOALDE**  
Euskaltegaia

Matrikula zaituz !!

Jose Lejarreta 9 behea  
Tfnoa 945 28 41 96  
01003 GASTEIZ

**XIXILU**  
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2  
Tfnoa: 945 23 00 68 · GASTEIZ



**B**etagarri 80:00 izenburuarekin aurkezten du talde gasteiztarrak beraien ibilbide musikalean hirugarren diskoa dena. Iñaki Jeitsi, Pablo Txakal, Aitor, Gontzo, Unai, David, Mikel, Iker eta Triku gazteek orain dela sei bat urte beren lehen maketarekin arrakastaren giltza eskuratu zuten, eta ordutik aurrera ere euskal musikaren gailurrean toki paregabea mantendu dute.

Beren hastapenetako maketarekin bi mila kopia saldu izana izan zen taldearen behin-betiko zoriona. Geroztik, "skazale" hauek beren doinu alai eta dibertigarriekin edo-

zein jaitan gogokoenetariko bilakatu dira. Gauzak horrela, maketa bat, disko bi eta kontzertu anitzen ostean musikari trebe hauen hasierako ideia ekoizten da; bertsionaturiko kanten bilduma egitea, alegia.

Betagarri 80:00 lan berria, aurrekoak ez bezala, Mil A Gritos disketxearekin grabatuak izan zirenak, Esan Ozenkiren eskutik datorkigu. Azkaraten, Kataraingo estudioetan, ekoiztutako honek Baldin Bada, BAP!, Danba, Eskorbuto, Exkixu, Hertzainak, Itoiz, Jotake, Korroskada, Kortatu, Lin Ton Taun, M-ak, Negu Gorriak, Potato, Ruper Ordo-

rika, Su Ta Gar, Tijuana in Blue, Virus de Rebelión eta Zarama taldeen kantak gogorarazten dizkigu, betiere Iñakiren ahots bereziaren kutsu nahastezinarekin. Taldekideek aitortu duten bezala, diskoak hogeitabesti jasotzen baditu ere euskal musikan izan diren izar denen melodiak ezin izan dituzte moldatu; hala eta guztiz ere, Betagarri talde gasteiztarrak bere azken diskoaren bitartez denboran zehar Euskal Herriko gertaerei musika jarri dieten horiei omenaldia eskaini nahi izan die. Hona hemen ba, Betagarriren arrakasta berri bat!!

**GASTEIZ**

**DIBUtec**

Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- FotoKopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean

**Arte ederretarako... behar duzun guztia**

**PAPERTEGI TEKNIKOA**

**BAR KLAKÉ**

KUTXA, 2  
TFNO. 143883

**GASTEIZ**

**RAFA TEJA ATELIER**

"Zetazko eta kotoizko ebunak eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

**Arantza Arregui**

Ramiro Maeztu, 1 · Tfno.: 945 13 33 59

**ARTEPAN**

Artisan Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2  
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37  
01005 GASTEIZ

*vitrales*

**BEIRATE ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1  
Tfno. 945 14 64 10

**GASTEIZ**

**MIKEL DELIKA**

zinema

GURIDI

ESTREINALDIAK

SAMANIEGO

- 2000-1-14: **"EL SEXTO SENTIDO"** M. Night Shyamalan (\*)
- 2000-1-14: **"SCARFIES"** Robert Sarkie
- 2000-1-14: **"MARIA Y ALREDEDORES"** Ignacio Perez de la Paz
- 2000-1-21: **"THE GREEN MILE"** Frank Darabont (\*)
- 2000-1-21: **"EL CORAZON DEL GUERRERO"** Daniel Monzon (\*)
- 2000-1-28: **"JUANA DE ARCO"** Luc Benson (\*)
- 2000-1-28: **"SUEÑOS ROTOS"** Jonathan Kaplan
- 2000-1-28: **"ORIENTE ES ORIENTE"** Damien O' Donell



(\*) VESA-koen iritiziz, interesagarri eta arrakastatsuenak

## ADI LEHIAKETARI!!!

GURIDI ETA SAMANIEGO ZINEMEN ESKUTIK URTARRILERAKO ZINEMARAKO 4 SARRERA ZOZKETATZEN DITUGU ERANTZUNA ASMATZEN DUZUEN HARPIDE-DUNEN ARTEAN: 2na sarrera irabazleentzat.

Abenduan Kubako musika eta musikarien inguruko filma izan genuen gure artean. Zein da zuzendaria?  
Ekoizlea? Eta izenburua?

\*Erantzuna eta saridunak datorren alean  
BIDALI ERANTZUNA GEU ALDIZKARIRA (4. Orrialdea) LEHENBAILEHEN POSTAZ EDO E-MAIL-EZ, ZUEN IZENA (ETIKETAKOA) ETA TELEFONO ZENBAKIA ZEHAZTUZ.

771 Arabako Natur Institutua



12A/99  
1999ko azaroan. Salburuako behatokitik egun euritsu batean. Basahate bikote bat eta buztanikara zuria

771 Iñaki Zorrakin - ANI - Tfnoa. 945 24 66 06

## Kontakizun laburren IV. literatura lehiaketa



Emakumezkoen hitza Antolatzailea eta informazioa: Berdintasunerako Udal Zerbitzua Lanak aurkezteko epea eta tokia: 2000ko urtarrilak 12, 13:00etan, Udaleko Argibide eta Erregistro bulegoan (Plaza berria, 1)

## ANTZERKIA

Takolo, Pirritx eta Porrotx 2000ko urtarrilaren 15ean Haur eskoletako gurasoen eskutik, euskaraz ikasteko eskubidearen alde. Tokia zehaztu gabe

## Denok sagardotegira!

2000ko urtarrilaren 22an, ITURRIETA SAGARDOTEGIAN (ARAMAIO) Antolatzaileak: GEU Elkartea eta Bagare Euskal Tokia Izena ematea: Bagaren Trikitilariak... egongo dira. Anima zaitezte!

## IKASTAROAK

Iraupen eskia. Antolatzaileak: GEU ELKARTEA, BAGARE EUSKAL TOKIA Otsailak 4, 5, 6. BELAGUAN 4 orduko ikastaroa: 5.500 pta (ikastaroa, materiala, aterpetxea) Gutxieneko kopurua: 15 lagun Kotxez joango da (gastuak, guztion

artean) Izena emateko epea: urtarrilak 27, Bagaren (1000 pezetako fidantza)

Emakumeentzako autodefentsa. Urtarrilak 11 - 18. 19'30 - 21'30. Judimendi Gizarte Etxea. 1.500 pta. Arabako Emakumeen Asanblada.

## ERAKUSKETAK

Mauro Entrialgo irudigile eta komikigilea. Zuloa Irudia Urtarrilak 31ra arte



## TAILERRAK

Urtarrilean zehar, Araiako Gazte Asanbladak Gaztetxean antolatutako tailerrak: taila, malabareak eta txalaparta. ARAIA.

## BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA

ANTOLATZAILEA: GEU ELKARTEA OTSAILAK 26, PRINCIPAL ANTZOKIAN (Otsaileko alean informazioa)

ZURE AUZOAN BERTSO SAIOKO KARTELAK JARTZEKO PREST??? ZURE LAGUNTZA BEHAR DUGU (KARTELAK, EGUNEAN BERTAN...)

**DEIGUZU ETA EMAN ZURE IZENA!!!**  
**945 22 21 53**

## GAZTETXEKO AGENDA

7 - Hala bediko jaia. Betagarri + In Albis. 21'00etan.  
8 - RDT (Haro) 22'00etan.  
14 - Tailerren aurkezpena (Talo, Antzerkia, Malabareak eta Perkusioa.  
21 - IKA (Txistorra jana" 22'00etatik aurrera.  
Tnoa. 945 25 68 18 • gagasteiz@euskalnet.net



arropa eta osagarriak

Dr. MARTENS botak

lehen ~~13.995~~ / ~~14.495~~

**ORAIN**  
**9.995**

**EZ GALDU AUKERA!**

HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38

**ORAINDIK EZ ZARELA GEU**  
**ALDIZKARIAREN HARPIDEDUN?**  
**ZEREN BAIN ZAUDE?**  
**945 22 21 53, ZURE ZENBAKIA!!!**  
**ETA EZ ITXARON GEHIEGU!!!**



**izozkiak**



**GORETTI**

**ILEAPAINDEGIA**

Hedegile kalea (KORRE), 14

(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ



**JANTZI**  
**ETA**  
**OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutsi), 27

Tfnoa: 945 26 07 10

GASTEIZ



**Hegoamerikako**  
**jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ortzean)

Tfnoa: 945 25 03 52

**AMILAMIA**

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17


tfnoa:

945 27 40 09

GASTEIZ



# Txerokiren abenturak



**HONAKO BULEGO HAUTAN BADAGO EUSKARAZ HARTUKO ZAITUEN LANGILERIK**

<b>BULEGOAK</b>	<b>ZERBITZUA</b>	<b>Helbidea</b>	<b>Tfnoa.</b>
<b>Udaletxea</b>	Udal informazioa	Espainia plaza, 1	010
	Argibideak eta Erregistroa	Espainia plaza, 1	16 11 88
	Errolda	Espainia plaza, 1	16 11 06
	Funtzio Publikoa	Espainia plaza, 1	16 11 41
	Gazteen Argibide Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 30
	Idazkaritza	Espainia plaza, 1	16 13 20
	Prensa Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 37
	Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1	16 13 08
<b>Udala (Dato kalea)</b>	Borondatezko Diru Bilketa	Dato kalea, 11	16 16 68
	Zergen Gestioa	Dato kalea, 11	16 11 33
<b>Udala (S. Prudentzio kalea)</b>	Gizartegintza	S. Prudentzio kalea, 30	16 13 44
	Arkitektura	S. Prudentzio kalea, 30	16 13 01
	Ingurugiroa	S. Prudentzio kalea, 30	16 11 20
<b>Udala (Etxanobetarren etxea)</b>	Emakumeentzako Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11	16 13 25
	Euskara Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11	16 15 22
<b>Udal artxiboa</b>	Argibideak	Unibertsitateko ibilbidea, 1	16 14 99
<b>Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia</b>	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 87
<b>Kultura</b>	Argibideak	Goiuri jauregia (Villa Suso)	16 12 70
<b>Hezkuntza</b>	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
<b>Ekonomi Sustapena</b>		Frai Zacarias kalea	16 12 11
<b>Gizarte Etxeak</b>	Hegoalde	Alberto Shommer kalea, z/g	16 18 80
	Iparralde	Zuberoa plaza, z/g	16 17 50
	Judimendi	Sefarad plaza, z/g	16 17 40
	Lakua	Etxanobetarren zidorra, z/g	17 17 81
	Aldabe	Eulogio Serdan Pasabidea, 2	16 19 19
<b>Montehermoso Kulturunea</b>	Argibideak	Frai Zacarias kalea, 2	16 18 30
<b>Europa gizarte-etxea</b>	Argibideak	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 33
	Biltzar eta Turismo Zerbitzua	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 61
	Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85	16 36 91
	Kirola	Gasteiz hiribidea, 85	16 15 19
	Europar Mugimenduaren E.K.	Gasteiz hiribidea, 85	16 15 57
	Elkarte eta Bolondresentzako Z.	Gasteiz hiribidea, 85	16 19 48
<b>Udaltzaingoa</b>	Administrazioa	Agirrelanda, 8	16 14 58
	Antolakuntza	Agirrelanda, 8	16 16 60
<b>Turismo bulegoa</b>	Argibideak	Dato, 11	16 15 99

EUSKARA AHOI KAHORA



KOLDO MITXELENA  
I N S T I T U T U A  
C A S T E I Z